



para hacer Historia
Historia egiteko

Egitasmoaren laburpena

IZENBURUA

Museo Ibiltaria. 100 objektu Historia egiteko

ZER PROPOSASTZEN DIZUEGU?

Historia ikastea eta gure arbasoen bizimoduak ulertzea, **Iruñeko Erresumaren Museo Etnografikoaren** bildumako 100 objektuen bidez. Aurreko mendeko eguneroko objektuen galdeketa eta azterketaren bitartez, ikasleek euren ezagutzak sortuko dituzte eta *Museo Ibiltariaren Instagram* kanalaren bidez partekatuko dira. Hartara, Historia hurbila modu esanguratsuan ikasteko formula berri bat proposatzen dizuegu, metodo zientifikoari dagozkion prozedurak aplikatuz, eta lankidetzan eta Sarean lan egitea ahalbidetuko duena.

NORI DAGO ZUZENDUTA JARDUERA?

Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei.

EDUKIAK

- Historia, kultura eta bizimoduak XIX. eta XX. mendeetan.
- Landa-bizitza: aldaketak eta jarraitutasunak. Objektuak, Historia ikasteko oinarrizko iturri material gisa.
- Metodo zientifikoa Historia alorreko ikasgeletan.
- Sare sozialak elkarlanerako ikaskuntza-plataforma gisa.

IKASKUNTZARAKO OBJEKTU ESPEZIFIKOAK

Lehen Hezkuntzako 3. zikloa

- Aldez aurretik mugatutako gertakari edo fenomenoei buruzko informazio zehatza eta garrantzitsua lortzea, hainbat informazio-iturri erabiliz (zuzenekoak zein zeharkakoak).
- Informazioa eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, Gizarte Zientziei buruzko informazioa lortzeko, ikasteko eta edukiak adierazteko.
- Talde-lana baloratzea, lankidetzeta eta parte-hartze arduratsuko jarrerak erakutsiz, eta elkarrizketa eta eztabaidetan besteen ideiekiko eta ekarpenekiko ezberdintasunak onartzea, errespetuz eta tolerantziaz.
- Sormena eta espiritu ekintzailea garatzea, informazioa eta ideiak aprobetxatzeko eta ondorio berritzaileak aurkezteko gaitasunak areagotuz.

IKASKUNTZARAKO OBJEKTU ESPEZIFIKOAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

- Iturri historikoak identifikatu, izendatu eta sailkatzea.
- Prozesu eta gertaera historiko garrantzitsuenak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea.
- Gertaerak eta prozesuak denboran zehar gertatzen direla eta modu berean beronekin bat egiten dutela ulertzea (diakronia eta sinkronia).
- Hainbat iturritako interpretazioen arteko ezberdintasunak identifikatzea eta azaltzea.
- Iragana «hilda eta lurperatuta» ez dagoela onartzea, baizik eta orainaldian, etorkizun posibleetan eta espazio ezberdinetan eragina eta/edo determinazioa duela onartzea.

METODOLOGIA

Ikastetxe bakoitzak *Museo Ibiltariaren* kutxa tematiko bat edo bi hautatu ditzake, horiek maileguan bidaliko direlarik **Iruñeko Erresumaren Museo Etnografikotik**. Hezkuntza-jarduera ikastetxean bertan egingo da, maileguan bidalitako objektuen bidez. Azken fasean, lana *Museo Ibiltariaren Instagram* plataformaren bidez erakutsiko da.

Teknologia berriak erabiliz, museoaren eta hezkuntza-komunitatearen arteko gune birtual bat partekatuko dugu, **Hezigune Birtuala** izenekoa. Espazio horri esker, ikasleek egindako ikerlanak transferitu ahal izango dira eta Museo Etnografikoaren sare sozialen eta blogaren bidez zabaldu ahal izango dira.

DENBORALIZAZIOA

Denboralizazio malgua eta pertsonalizagarria. Proiektu hau lau lan-fasetan egituratuta dago eta irakasleek egutegira eraman beharko dute, gauzatzeko duten denboraren baitan.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Hezkuntza-proiektu honi buruzko informazio gehiago lortzeko:

https://www.youtube.com/watch?v=2B_IsWBUYII

Jarduera erreserbatzeko, Museo harremanetan jartzea beharrezkoa da, posta-elektroniko idatziz educacion@museoetnograficoarteta.com